

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Aurki ikusgai: urtarrilak 29

BILBO ETA PINTURA

Babeslea:



Harro egoteko arrazoi gutxi izango dira norberaren sorlekuaren edertasuna erakustea bezain egiazko eta zilegi. Horregatik, Iberdrolarentzat benetan pozgarria da Bizkaiko hiriburuak XIX. mendearen amaieratik XX.aren hasierara bitartean hasi zuen modernizazio-prozesu geldiezin hartako historia-aldian egin zen arteari buruzko erakusketa hau, *Bilbo eta pintura*, sustatzea. Formatu handiko hogeita hamarren bat pintura-lan biltzen ditu erakusketak, eta haietan ageri diren alderdi ugari eta askotarikoetan ederki azaltzen da nolako paisaia zegoen eta nolako gizartea zen ekoizpenean berrikuntzak sustatuz eta aldaketa ekonomikoak eraginez Bilbon bizitza modernoa hastera ekarri zuen hura.

Orduan gertatutako trantsizio garrantzizko hartan du sorburua gure enpresak —gaur egun munduko hiru konpainia elektriko handienetako bat, dozenaka herrialdetan kokatua eta energia-trantsizioan erreferentziazkoa—.

Iberdrolaren hazi izan ziren konpainietako bi XX. mendearen hasieran sortu ziren Bilbon, bizkaitarren kapitalarekin: Hidroeléctrica Ibérica 1901ean eta Saltos del Duero 1918an. Etapa hartan aurrerapena eta industrializazioa ahalbidetu zituzten beste hainbat proiektu bezala, ekimen horiek ere proiektu kolektibo batetik sortu ziren, ingeniarien abangoardiako ezagutza teknikoak langile askoren ahaleginarekin eta inbertitzaileen ahalmen finantzarioarekin elkartuta.

Bilbo eta pintura ikustera hurbildutakoek dudarik gabe miretsiko dute margolanen balio plastikoa, eta alde horretatik azpimarratzekoak dira Euskal Herriko pintura Europako arte moderno onenarekin lotzen duten berrikuntzak; baina, horretaz gain, paisaien ikuspegi zirraragarriak, mendialdean nahiz itsasaldean lanean ari diren herritarrak, eta haien jai eta zeremonietako poza erakutsiz, erakusketak argi transmitituko dizkie bisitariei horren guztiaren atzean dauden hainbat balio: ahalegina, talentua, konpromisoa, irmotasuna, konfiantza... Balio horiek eraginda jardun zuten hiri hau modernitatearen lehen lerroan jartzeraino erro-errotik aldarazi zuten erakundeek eta pertsonak.

Balio horiei eta berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzeko bokazio irmoari esker, atzo bezala gaur, Iberdrolak Bilbotik lanean dihardu gizarte guztiak energiaren eta ingurumenaren aldetik dituen premiei aurrea hartzeko, eta mundu osoan 100 milioi pertsona baino gehiago hornitzen ditu gaur egun.

Ongi etorriak zarete ikusle guztiok erakusketa honetan. Iragan zinez zoragarrian kokatzen gaitu, eta argiro erakusten digu ezen, asmamenez eta ahaleginez, etorkizunik onena lantzea gure esku dagoela.

Ignacio S. Galán
Iberdrolaren presidentea

Bilbo eta pintura

- Datak: 2021eko urtarrilaren 29tik abuztuaren 29ra
 - Komisarioa: Kosme de Barañano
 - Babeslea: Iberdrola
-
- XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, Bilbo zabaldu egin zen, zentzu guztietan egin ere (hots, urbanistikoki eta industrialki), eta hori pintura-arloan islatu zen.
 - Obrek era askotako eszenak irudikatzen dituzte; besteak beste, itsasadarreko itsasontziak eta terrazak, merkataritzako burgesiaren eta baserritarren bizimodua, herriko festak, kirol berrietako heroiak eta arrantza-portuetako eguneroko zereginak.
 - Itsasoa eta itsasontziak behin eta berriro agertzen dira Bilbori buruzko mende-aldaketako margolanetan; artista gehienek haien kolorea jaso nahi izan zuten, eta hiribilduaren merkataritzarako eta kulturarako zuten funtsezko garrantzia adierazi.

Guggenheim Bilbao Museoa *Bilbo eta pintura* dakarkigu, Iberdrolaren babespean. Erakusketako margolanak egin zituzten artistek Bilbon lan egin zuten XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, baina Parisen ibiliak ziren eta Frantziako inpresionismoaren eta abangoardien modernitate-ideiak txertatu zituzten. *Fin de siècle* delakoan, Bilbo Espainiako hiri oparoenetako bat bihurtu zen, bai ontzi-industriari eta industria siderurgikoari esker, bai bertako jarduera komertzialari eta banku- eta kultura-jarduerari esker. Garai hartako bilbotarrek aurrera egiteko nahia eta borondate praktikoa zuten, guztientzat etorkizun hobe lortzekoa; bazuten nolabaiteko enpatia bat tamalez apurtu egin zena 1936an Gerra Zibila hasi zenean.

Erakusketak Bilboren historiako askotariko uneak irudikatzen eta kontzeptualizatzen ditu, horma-irudi piktorko handien bidez. Irudi horietan, eszena ugari agertzen dira; besteak beste, itsasadarreko ontzi komertzialak eta aisiarako terrazak, burgesen eta baserritarren bizimodua, arraunlariak, itsasoko borroka eta heriotza, kiroleko heroiak, arrantza-portu bateko eguneroko zereginak eta elizate bizkaitar bateko erromeriak.

ERAKUSKETAN BARRENA

Erakusketaren sarrerako espazioan, bisitaria XIX. mendeko Bilbon murgilduko da, eskala handiko argazki-kopien bidez, eta Paco Durrio eskultore bilbotarra ere testuinguruan jarriko da, hura baita XX. mendean Espainian egin zen arte publikoko eskultura garrantzitsuenetako baten egilea: *Juan Crisóstomo de Arriagaren monumentua*. Musikariari eskainitako eskultura hori Bilboko Arte Ederren Museoaurrean dago, eta musikaria irudikatu beharrean, haren lana eta haren heriotza goiztiarra sinbolizatzen ditu. Durrio oso garrantzitsua izan da artearen historian, bi arrazoiengatik. Alde batetik, Paul Gauguinen testamentu-betearazlea izan zen; Gauguinek bere obra piktorko gutzia utzi zion

1895ean Polinesiara azkenekoz abiatu aurretik. Bestetik, Gauguinen berrikuntzaren lekukoa Pablo Picasso gazteari pasatu zion; Picasso Parisera iritsi berria zen 1901ean eta Durriok bere estudioa utzi zion, eskuzabaltasunez, lehenengo pieza eskultorikoak egin zitzaizkion.

Lehenengo aretoa

Galeria honetan, Adolfo Guiard, Ignacio Zuloaga, Anselmo Guinea, Manuel Losada eta José Arrueren zenbait obra daude. Obra horiek XIX. mende-amaierako Bilboren paisaia ekonomiko, sozial eta urbano berria osatzen zuten askotariko alderdiak aurkezten dituzte. Adolfo Guiardek 1886an egin zituen *Itsasadarra Axpen* (*La ría en Axpe*) eta *Terrazan* (*En la terraza*) obretan, itsasadarrean ainguratutako itsasontzien eta itsasoaren ikuspegiak eskaintzen dituzte kanpoko portura irekitako bainuetxe baten terrazatik. Aipatutako koadro hauek Sociedad Bilbaina elkartearen egoitzan eskegita egon ohi dira, zeina aitzindaria izan baitzen artistei babes eskaintzen 1839an sortu zenetik.

Bestalde, Ignacio Zuloagaren *Egunsentia* (*Amanecer*), Manuel Losadaren *Walkiriak* (*Las Walkirias*) eta Anselmo Guinearen *Osasunaren iturria* (*La fuente de la salud*) obrek burgesia ilustratua irudikatzen dute, 1894an sortutako Kurding Club elkarteko zenbait kideren bidez (ofizialki «El escritorio» deiturikoa). Obra horietan agertzen diren pertsonaiak musika gustuko duten enpresaburu gazte bilbotarrak dira. Enpresaburu horiek zenbait horma-irudi egiteko eskatu zieten Parisetik bueltatu berriak ziren —eta institutuan ikaskide izan zituzten— margolari haiei, elkarteko hormak apaintzeko. Gazte haiek funtsezko eginkizuna izan zuten gaur egun bizirik jarraitzen duten Bilboko musika-erakundeen sorkuntzan (esaterako, Elkarre Filarmonikoa, Bizkaiko Musika Akademia —Kontserbatorioaren aitzindaria— eta Orkestra Sinfonikoa), baita industria- eta banku-sare berrian ere. Pintura arina eta modernoa erabilita, Kurding Club-eko horma-irudiek Bilboko aisia-giroa irudikatzen dute eguneroko eszenen bidez (adibidez, San Nikolas eliza eta Areatza egunsentian), baita baserritar eta bertsolarien eszena bat ere mendialdean (Zubiaurrerena).

Bigarren aretoa

Areto honetako margolanek itsasoko eta mendiko eszenak irudikatzen dituzte. Nahiz eta geografikoki elkarrengandik hurbil egon, marinel-herriek eta landakoek kolore-kode zeharo desberdinak erabiltzen dituzte, besteak beste, itsasontzien eta baserrien pinturaren gama kromatikoa, linealtasunean eta proportzioan ikusten den bezala.

Itsasoa behin eta berriro agertzen da Bilbori buruzko mende-aldaketako margolanetan; artista gehienek haren kolorea jaso nahi izan zuten, eta hiribilduaren merkataritzarako eta kulturarako zuen funtsezko garrantzia adierazi. Bi kasuen adibide dira Ramón Zubiaurreren *Shanti Andia* “*Ausarta*” *euskal marinela* (*El marino vasco Shanti Andía, el Temerario*) (zeruertzera begira dago enbataren erdian) eta Gustavo de Maezturen *Lirika eta Erljioa* (*Lírica y Religión*) (arrantzale batzuk lehorrera iritsitakoan itsasoan hildakoen berri emateak herrian eragiten duen hunkipena irudikatzen du).

Landaguneari dagokionez, oso eszena ezberdinak irudikatzen dituzte margolanek. Adolfo Guiarden *Uzta-garaia* (*La siega*) lanean, adibidez, baserritarrak uzta biltzen ari dira, eta soroetako berdea okre eta hori bihurtuz doa bertan. Francisco Iturrinoren lanetan, aldiz, abelburuak eta festa ikusten dira,

esaterako *Eztenkariak* edo *Landako eszena* (*Los garrochistas* o *Escena campera*) edo *Landako festa* (*Fiesta en el campo*) margolanetan. Horra hor Parisen ikasi eta Espainiaratutako postinpresionismoaren eta fauve pinturaren bi adibide kontrajarri. Aretoko azken lanak Aurelio Artetaren *Gerraren triptikoa* (*Tríptico de la guerra*) eta Agustín Ibarrolaren *Totem* dira (azken horretan, eskulturak balira bezala irudikatuta ageri dira baserritarren eta baserriko bizitzaren lanabesak).

Hirugarren aretoa

Hirugarren aretoko obrek folkloreaken ikuspegi etnografikoa osatzen dute, eta horietan, artistek dantzaren sinbologia dokumentatzen dute, besteak beste. Hala, ikusgai egongo dira Manuel Losadaren pintura kostunbrista *Terencio jauna eta Txango txistularia* (*Don Terencio y Chango, El txistulari*) margolanetan, Aurelio Artetaren elizateetako dantzaldien mundua *Erromerian* (*En la romería*) lanean, eta Jesus Olasagastiren obrak jasotzen dituen udazkeneko sagar-bilketa eta sagar-dantza. Erromerien eszena desberdinak ere ikus daitezke José Arrueren obra berezietan; esaterako, Bermeoko auzo bateko bat, zeruertzean itsasoa duena, eta beste bat Arrankudiagan, hondoan harkaitzak dituen.

Aretoa osatzeko, José María Ucelayren *Zuberoako dantzak* (*Danzas suletinas*) dugu. Margolan horrek Euskal Herriko dantza antzinakoenetako baten ikuspegi entziklopedikoa eskaintzen digu: Zuberoako maskaradarena. Dantza horrek herri osoa biltzen du, eta zaldien etxekotzean oinarritzen da.

DIDAKTIKA

BBK-k babesten duen Didaktika proiektuaren parte gisa, Museoak erakusketa bakoitza osatzen duten jarduera bereziak diseinatzeko dituzte.



Bilbo eta pintura erakusketaren aurkezpen-hitzaldia (urtarrilak 27)

Erakusketaren komisario Kosme de Barañanok erakusketaren gakoak azalduko ditu jarduera honetan, erakusketari hasiera eman aurretik. Streaming bidez ere eskainiko da jarduera.

Hausnarketa partekatutak

Museoko Arte Ardurako eta Hezkuntzako profesionalek eskainitako bisitaldi paregabeak, erakusketa berrietako edukiari buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituztenak.

- Arte-arduradunaren ikuspegia (otsailak 10): Petra Joosek, Museoko arte-arduradunak, erakusketako obra nagusiak erakutsiko ditu.
- Funtsezko kontzeptuak (otsailak 17): Luz Maguregui, Hezkuntzako koordinatzaileak, obren alderdi orokorreari eta didaktikoei buruz hitz egingo du bertaratzen direnekin.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Sormen-saioa: *Paco Durrio, urregile. Modernitatea eta abangoardia* (martxoak 4)

Bitxiak diseinatzen ikasteko tailerra, Matxalen Krug diseinatzailearen eskutik. Praktikatzeke eta ikasteko aukera emango du, giro lasai eta atseginen.

Ibilbide arkitektonikoa Ricardo Bastidaren eta Aurelio Artetaren Bilbon barrena, eta erakusketarekiko loturak (apirilak 17 eta maiatzak 1)

Ibilbide bat egingo da hirian barrena, Museoaren zabaldegitik abiatuta, Borja Vildosola arkitektoaren eskutik. Horrez gain, erakusketaren muntaketaren xehetasunak, museografia-diseinua eta obrak azalduko dizkie parte-hartzaileei.

Euskal dantza. *Elkarrizketak mugimenduan: Ibis Albizu eta Jon Maya (Kukai Dantza)*

Giza burmuinaren garapenean eta kultur idiosinkrasiaren (dela tokikoa, nazionala zein nazioartekoa) bilakaeran dantzak zer nolako garrantzia duen nabarmenduko du bi saioz osatutako jarduera honek.

- **Ibis Albizuren hitzaldia** (maiatzak 13)

Ibis Albizuk dantza jorratuko du, oro har, eta bereziki euskal dantza, ballet klasikoarekiko dituen loturak kontuan hartuta eta ikuspuntu filosofiko eta teorikotik abiatuta; Albizu filosofoa da, eta aditua dantzaren teorian eta mugimenduan den gorputzak eragiten dituen sormen-prozesuen azterketan.

- **Kukai Dantza/Jon Mayaren koreografia-ekintza** (maiatzak 15).

Kukai Dantza taldeak zuzeneko koreografia-ekintza bat eskainiko du *Bilbo eta pintura* erakusketaren aretoan bertan, Jon Maya dantzari eta koreografoa zuzendari duela (2009ko eta 2015eko MAX Sariak eta 2017ko Dantza Sari Nazionala —Kukai Dantza).

KATOLOGOA

Kosme de Barañanok ondu du erakusketaren katalogoa, eta Bilboren garapenean tarteko izan diren alderdi sozial, ekonomiko eta politiko ugari jorratzen dituen ibilbide zabala aurkezten du bertan. Halaber, zehaztasun osoz aztertzen ditu erakusketa osatzen duten margolanen hogeita hamarren bat eszena, eta horrek aukera ematen die irakurleei “gure hiriaren historian barneratzeko [...] historia hori ulertuta 1800eko Bilbo hartara hurbiltzen gaituen eta etorkizunera nola begiratu iradokitzen digun *continuum* gisa”.

Azala:

Adolfo Guiard

Terrazan (En la terraza), 1886 (xehetasuna)

Olio-pintura mihise gainean

110 × 470 cm

Bilduma: Sociedad Bilbaina

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel.: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak

Bilbo eta pintura

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala.

Dagoeneko erabiltzailea bazara, adierazi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta sartu zuzenean irudiak deskargatzeko orrian.

- *Bilbo eta pintura* erakusketaren publizitatea egiteko soilik erabiliko dira irudi horiek. Erakusketa 2021eko urtarrilaren 29tik abuztuaren 29ra egongo da zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe. Erreproduzioekin batera, artistaren izena, obraren izena eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua adierazi behar dira.
- Online argitaratutako irudiak segurtasun-neurri elektronikoen bidez babestu behar dira
- Irudiek gehienez 1.000 pikeleko bereizmena izango dute alderik luzeenean. Online argitalpeneko fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin da izan deskargagarria.
- Irudiak ezin zaizkie transferitu hirugarrenei edo datu-baseei.
- Irudiak azalean erabiliz gero, baliteke zerbait ordaindu behar izatea, eta obraren copyrightaren jabe eta titularrak baimena eman beharko du.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-eremuarekin, telefonoz (+34 944 359 008) edo posta elektroniko bidez (media@guggenheim-bilbao.eus).

Adolfo Guiard

Itsasadarra Axpen (La ría en Axpe), 1886

Olio-pintura mihise gainean

115 × 295 cm

Bilduma: Sociedad Bilbaina



Adolfo Guiard

Terrazan (En la terraza), 1886

Olio-pintura mihise gainean

110 × 470 cm

Bilduma: Sociedad Bilbaina



Adolfo Guiard

Ehiztariak Iparraldeko geltokian (Cazadores en la Estación del Norte), 1887

Olio-pintura mihise gainean

116 x 310 cm

Bilduma: Sociedad Bilbaina


Adolfo Guiard

Uzta-garaia (La siega), ca. 1892

Olio-pintura mihise gainean

220,7 x 158,5 cm

Bilboko Arte Ederren Museoa. Bilduma pribatu baten gordailua


Manuel Losada

Terencio jauna eta Txango txistularia (Don Terencio y Chango, El txistulari), 1894

Olio-pintura mihise gainean

195 x 220 cm

Bilboko Elkartea Filarmonikoa

© Manuel Losada


Manuel Losada

Walkiriak (Las Walquirias), c. 1894

Olio-pintura mihise gainean

190 x 361 cm

Bilboko Elkartea Filarmonikoa

© Manuel Losada


José Arrue

Estropadak Abran. Alfontso XIII.a Algortako itsasargian (Regatas en el Abra. Alfonso XIII en el faro de Algorta), 1908

Gouachea

43 x 150 cm

Bilduma: Sociedad Bilbaina

© José Arrue


José Arrue

Athletic Club taldea (Equipo del Athletic Club), 1915

Gouachea paper gainean

52,5 x 103,5 cm

Athletic Club Museoaren bilduma

© José Arrue



Aurelio Arteta

Arratiako Eva (Eva arratiana), 1913

Olio-pintura mihise gainean

152 x 286 cm

Bilduma: Sociedad Bilbaina


Julián de Tella

Itsaontziak portuan (Barcos en el puerto), c.1925

Baliabide anitzak (klara eta pastela) paper gainean

280 x 98 cm

Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia


Gustavo de Maeztu

Lirika eta Erljioa (Lírica y Religión), 1922

Olio-pintura mihise gainean

200 x 350 cm

Bilduma: Bizkaiko Batzar Nagusiak

© Gustavo de Maeztu


Aurelio Arteta

Gerraren triptikoa (Tríptico de la guerra), 1937-1938

Olio-pintura mihise gainean

1. triptikoa: 161,5 x 120,5 x 2 cm

2. triptikoa: 180 x 168 x 4 cm

3. triptikoa: 178 x 166 x 2 cm

Arabako Arte Ederren Museoa

Juan Celaya Letamendi Fundazioaren gordailua. Vitoria-Gasteiz


Jose Maria de Ucelay

Zuberoako dantzak (Danzas suletinas), 1956

Olio-pintura mihise gainean

152,4 x 270,3 cm

Bilduma: BBVA

© José María de Ucelay

